

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4762

1890/2023 EBAZPENA, irailaren 29koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez izendatzen den lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko epaimahai kalifikatzailea Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako (2023., 2024. eta 2025. urteetan argitaratuko diren Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko kategorietako destinoak eskaintzeko zikloak).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren eta 2019ko abenduaren 24ko EHAako 244. zenbakian argitaratu ziren.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 26ko 270/2021 Ebazpenaren bidez, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Erradioterapiako Teknikari Espezialista kategorian.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 26ko 1673/2019 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren deialdia egin zen Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Laborategiko Teknikari Espezialista kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetarako (2020ko urtarrilaren 13ko EHAako 7. zenbakia).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 26ko 271/2021 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren deialdia egin zen Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Anatomia Patologikoko eta Zitologiako Teknikari Espezialista kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetarako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 26ko 273/2021 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren deialdia egin zen Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Dietetikako Teknikari Espezialista kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetarako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1308/2021 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren deialdia egin zen Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Dokumentazio Sanitarioko Teknikari Espezialista kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetarako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 26ko 269/2021 Ebazpenaren bidez, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren deialdia egin zen Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Erradioterapiako Teknikari Espezialista kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetarako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 26ko 272/2021 Ebazpenaren bidez, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren deialdia egin zen Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Audioprotetikoko Teknikari Espezialista kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetarako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 27ko 432/2023 Ebazpenaren bidez (uztailaren 4ko 658/2023 Ebazpenaren eta abuztuaren 9ko 1085/2023 Ebazpenaren bidez aldatua), argitaratu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Erradiodiagnostikoko Teknikari Espezialista kategoriako lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 27ko 433/2023 Ebazpenaren bidez (uztailaren 4ko 839/2023 Ebazpenaren eta abuztuaren 9ko 1085/2023 Ebazpenaren bidez aldatua), argitaratu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Laborategiko Teknikari Espezialista kategoriako lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 27ko 434/2023 Ebazpenaren bidez (abuztuaren 9ko 1085/2023 Ebazpenaren bidez aldatua), argitaratu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Anatomia Patologikoko eta Zitologiako Teknikari Espezialista kategoriako lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 27ko 435/2023 Ebazpenaren bidez (abuztuaren 9ko 1085/2023 Ebazpenaren bidez aldatua), argitaratu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Dietetikako Teknikari Espezialista kategoriako lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 16ko 578/2023 Ebazpenaren bidez (abuztuaren 9ko 1085/2023 Ebazpenaren bidez aldatua), argitaratu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Dokumentazio Sanitarioak Teknikari Espezialista kategoriako lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 27ko 436/2023 Ebazpenaren bidez (abuztuaren 9ko 1085/2023 Ebazpenaren bidez aldatua), argitaratu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Erradioterapiako Teknikari Espezialista kategoriako lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 27ko 437/2023 Ebazpenaren bidez (abuztuaren 9ko 1085/2023 Ebazpenaren bidez aldatua), argitaratu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Audioprotetikoko Teknikari Espezialista kategoriako lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 26ko 112/2021 Ebazpenaren bidez, zenbait alderdi ezartzen dira Osakidetzako lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko epaimahaietako

kideak izendatzeko, eta zehazten da epaimahai batek bilduko dituela Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko kategoriak. Ebazpen hori partzialki aldatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusiaren uztailaren 8ko 922/2021 Ebazpenaren bidez.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 3ko 1314/2023 Ebazpenaren bidez, zenbait irizpide ezarri ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko epaimahaiak berritzeko eta epaimahaikideak izendatzeko.

2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 10.1. oinarriarekin eta aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenean ezarritako irizpideekin bat etorritik, Osakidetza Zuzendaritza Nagusiak lekualdatze-lehiaketa kalifikatuko duen epaimahaia izendatuko du, eta epaimahai hori denboraldi jakin baterako izendatzea aurreikusi ahal izango da, hurrengo esleipen-prozesuetan baremazio- eta balorazio-zereginak egin ahal izateko.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2023ko martxoaren zikloko eta indarreko urtean eta 2024. eta 2025. urteetan argitaratuko diren destino-eskaintzako zikloetako epaimahai kalifikatzaile izendatzea Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko kategorian guztietan. Ebazpen honen eranskinean agertzen diren kideek osatuko dute lehiaketa hori.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 10.1 apartatua eta Osakidetza zuzendari nagusiaren urtarrilaren 26ko 112/2021 Ebazpenaren lehen apartatua aplikatuz, izendapen hori 2023ko martxoko zikloa amaitu arte luzatuko da, baita aurten eta 2024an eta 2025ean argitaratzen diren destinoak eskaintzeko zikloak amaitu arte ere, eta beste bi urte gehiago luzatu ahal izango dira dagozkien kideentzat, betiere esperientzia duten kideak egon daitezten epaimahaietan.

Prozesuen jarraipena bermatzeko eta epaimahaiak beti esperientzia duten kideak izan ditzan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 26ko 112/2021 Ebazpenak ezarri zuen epaimahaikideen % 50 behin bakarrik luzatzea, bi urtez, eta epaimahaikideen beste % 50a berritzea, eta horrela hurrenez hurren, bi urtetako ziklo-aldiak amaitzen diren bakoitzean.

Ebazpen hori betez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 3ko 1314/2023 Ebazpenak epaimahaiburu eta epaimahaiko lehenengo, bigarren eta hirugarren epaimahaikide izendatutako pertsonak berritzea erabaki zuen. Era berean, urtarrilaren 26ko 112/2021 Ebazpenean ebatzitakoa betez, uztailaren 3ko 1314/2023 Ebazpenak erabaki du izendapena luzatzea laugarren eta bosgarren batzordekide eta idazkari izendatutako pertsonen, titularrei zein ordezkoei.

Izendapena luzatzea erabakitzen bada, Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez egingo da.

Bigarrena.– Ebazpen honek ebazpenaren egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web-orrian eta EHAAan argitara dadin agintzea.

Laugarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetza Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezarritakoaren

2023ko urriaren 19a, osteguna

arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 29a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

ERANSKINA

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

TEKNIKARI ESPEZIALISTA SANITARIOAK

Batzordeburua:

- Titularra: Iñigo Arribalzaga Jaureguizar.
- Ordezkoa: Izaskun Zoilo Sánchez.

Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: Inmaculada Vázquez Ríos.
- Ordezkoa: Julio Val Gómez.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Josu Valiño Solana.
- Ordezkoa: Vanesa Valdivia Leiton.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: María del Carmen Zaballa Alaguero.
- Ordezkoa: Gonzalo Antonio Yáñez Higuera.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Luis Alberto Salinero Oteo.
- Ordezkoa: Ana Robles San Miguel.

Bosgarren epaimahaikidea:

- Titularra: María Cándida Quintas Torres.
- Ordezkoa: Luis Ramón Ruiz de Eguilaz Rodríguez.

Idazkaria:

- Titularra: Susana Rodríguez Carballeira.
- Ordezkoa: Ander Santamaría García.